

Bi opera prima aurkeztu zituen atzo Ereinek: Juan Modesto Arrietaren «Izen bereziak» eta Eneko Aizpuruaren «Errauts». Aurrenekoa ipuin liburua da eta izenak ez ezik, izan bitxiak biltzen ditu. Egilea bera ere atipikoa da, 50 ur-

terekin ekin baitzion istorioak idazteari, eta orain, erretiratu ondoren, izan baitu denak lan batean elkartzeko aukera. «Errauts» nobela beltza, bestalde, Lazkaon hasten da, magrebtar gizon bat labankadaz hilda agertzen denean.

Izen berezien gaineko ipuinak idatzi ditu Juan Modesto Arrietak, beretik abiatuta

Maidar IANTZI | DONOSTIA

Iñaki Aldekoa Ereineko editoreak argitu zuenez, «Izen bereziak» opera prima bada ere, egileak, Juan Modesto Arrietak, aspalditik idazten du eta sari garrantzitsuak irabaziak ditu bere ipuinei esker; Donostia Saria, adibidez. Orain, liburua osatu du hamaika ipuinekin. Horiek hamar urteotan idatziak dira, eta denetarioak izan arren, lokarri bat dute: izen eta izan bereziko protagonistak dituzte.

Idazlearena berarena da lehendabiziko izen bitxia eta hitzaurrean kontatzen ditu horrek txikitatik ekarri dizkion arazok. Jaiotzez Juan Modesto izanik, etxean beti horrela deitzen zioten; arrebak, ordea, Juanmo sortu zuen biak batuta eta eskolan Modesto gailendu zen. Izen desberdinekin, nortasun ezberdinen jabe ere bazela iruditzen zitzaion, Gabriel Arestik idatzi zuen bezala, izena izana delako.

Soldaduskan are gehiago korapilatu zen kontua, Juan zelako izen ofizial bakarraren arabera. Geroago, gerra garaiko pertsonaia historiko batek ere Juan Modesto izena zuela jakin zuenean, jo eta ma gelditu zen, ez zuelako izen hori zuen bertze inor ezagutzen.

Bere izenaren gibeletik, bertze hamaika ageri dira liburuan: GAFI, «putakume bat besterik ez» dena; Mark Danel disko-

SUTEEN HARIRA

Duela zenbait urte, Gipuzkoan, etorkin adingabe batzuek su eman zieten egoitzei eta polemika sortu zen. Orduan hasi zen Eneko Aizpuru orain ere pil-pilean den gaia lantzen.

jaurtitzaila olinpikoa, banketxe bateko lapurreta antolatzen duena; Danis Etxegoiti, natura hilen margolaria, bere koadroetan oinarrituta istorio harrigarriak asmatzen dituena...

Kazetaria, hilketa bat ikertzen


Gizon magrebtar bat labankadaka hil dute Lazkaon eta abokatu batek krimena argitzeko eskatu dio Mikel Egileor kazetariari. Honek, egunkariko lanpostua galtzear denez eta diru arazoak dituen, berehala onartuko du

mandatua eta ikertzen eta ezkutu interes zikinak azaleratzen joanen da. Hala hasten da «Errauts»-en istorioa. Egileak, Eneko Aizpuruak, betidanik izan du atsegin nobela beltza, eta genero hau egokia iruditu zaio bere lehendabiziko liburuan jorratzen duen gairako.

Adierazi zuenez, kazetari baten esku jarri du ikerketa komunikabideen inguruan hausnartzeko bidea ematen ziolako eta kazetarien berriak emateko moduak eragina duelako gizartearen.

SINBOLISMOZ
BETETA ITZULI DA
AMAIA ITURBIDE
POETA

«Eszenatokietako aztarnak hasten direnean» seigarren poema liburua ireki du Amaia Iturbide, «Labirintoaren orduak» kaleratu zuenetik hiru urtera, oraingoan ere bide «anitz eta abartuetan» barna, halakoak interesatzen baitzaizkio idazle bilbotarrari. Sinboloz beteta dago lan berria: ura, sua, kaleak, mendia, katua, hontza... Eta elementu hauek «egunerokoari atxikita» daude, hasieran jorratzen zuen sinbolismo mugagabetik urrun. Antzerkia eta pertsonaia paradoxikoak, euskal mitologia pop artearekin eta mikikiarekin lotuta, Mikel Laboari edo Xabier Leteri egindako eskaintzak... eta anitzez gauza gehiago jasotzen ditu obra honek. M. I.



Eneko Aizpuru, Juan Modesto Arrieta eta Amaia Iturbide, bakoitza bere liburu berriarekin.

Gari GARAIALDE | JARGAZKI PRESS

Mansfield-en eta Ionescoren lan banarekin inauguratu du Elkarrek Urrezko Biblioteka

M. I. | DONOSTIA

Aspaldi literatura unibertsaletik euskarara ekarritako obra garrantzitsuak eguneratu, orraztu eta berriro argitaratzeko asmoz jaio da Urrezko Biblioteka, Elkarren, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte (EIZIE) eta Lakuako Kultura Sailaren lankidetzaz. Atzo aurkeztu zituzten aurreneko bi liburuak: Katherine Mansfield-en «Lorategiko festa» (The Garden Party) eta Eugene Ionescoren «Emakume abeslari burusoila» (La Cantatrice Chauve). Hogei obra behintzat argitaratzeko lanean ari direla adierazi zuten.

Jon Muñozek euskaratu du «Emakume abeslari burusoila». Azaldu zuenez, Ionescorentzat, XX. mendeak eman zuen antzerkigile famatuenetakorentzat, bizitza bera «adar-jotzea zen, zentzugabea, absurdoa» eta giza izatearen absurdo hori adierazteko antzerki absurdo hau sortu zuen. Senar-emazte bat eta bisitariak ageri dira berrualde «ingeles» batean solasean: neskamea, suhiltzailea, baita ordulari hitzontzi bat ere.

Itzultzaileak abisatu zuenez, «liburu hau zentzugabea da», erranen dute irakurleek, baina kontakizunean harrapatuta gelditu direla konturatuko dira.

Bestalde, «Lorategiko festa» XX. mendearen hasierako emakumeen egoera hobekien jaso zuten idazleetako batena da, Katherine Mansfieldena. Anton Garikano itzultzaileak egile hau markatu zuten faktoreetako batzuk aipatu zituen: alde batetik, jatorria. Zeelanda Berrikoa zen. Izugarri maite zuen bere herria, baina hango bertze hainbat bezala, Britainia Handira begira bizitzeko eta azkenean arrotz sentitzen zen bai leku batean bai bertzean. Bigarren faktorea osasun arazoak izan ziren, eta sentitzen zuen hutsunea, bilatzeko beharra. Bere pertsonaiek ere ezaugarri hauek dituzte.

«GARTXOT» LIBURUA

Gartxoten kondaira, testuingurua eta sortzaileen testigantzak bildu dituzte

Ohar-papertxo osatutako altxor txiki hau Asisko Urmeneta eta Edorta Barruetabeñak idatzi dute, «Gartxot» filmaren gidolariek. Lehenengo zatian, garaiko testuingurua erakusten dute; bigarrenean, aldiz, Gartxot ikur gisa hartu duten sortzaileen testigantza jaso dute. Erdi-erdian, Gartxoten kondaira aurkituko du irakurleak. Hortik has daiteke, liburu hau batetik bestera jauzika irakurtzeko modukoa baita.

«VERA CANDIDAZ DAKIDANA»

Independentzia senari eusten dioten amona, alaba eta bilobaren istorioa

Veronique Ovaldek idatzi eta Alberto Barandiaranek itzulitako «Vera Candidaz dakidana» lanean (Alberdania), Karibeko hondartza baten aurrean eraikitako etxola batean, sendi bereko hiru emakumeren bizibeharra harilkatzen da. Amona, alaba eta bilobak independentzia senari eusten diote giroaren eta patuaren eta Vatapunako gizartearen aurka.